

Bilbon, 2010.eko azaroaren 26an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Arkotxa, Aurelia, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Lizundia, Jose Luis, diruzaina,
Sagarna, Andoni, Iker sailburua
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,
Aleman, Sagrario
Arejita, Adolfo
Azkarate, Miren
Davant, Jean-Louis,
Goenaga, Patxi,
Haritschelhar, Jean,
Lakarra, Joseba,
Larre, Emile,
Peillen, Txomin,
Salaburu, Pello,
Sarasola Ibon,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi,
eta Videgain, Xarles,

Joseba Zabaleta kudeatzailea,
Mikel Gorrotxategi,
Patxi Galé

eta Alfontso Mujika euskaltzain urgaz-
leak, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Bernardo
Atxagak, ahala A. Urrutiari; Beñat
Oihartzabalek, ahala Xarles Videgain,
edo J. Haritschelharri; Patxi Zabaletak,
ahala A. Iñigori; Mikel Zalbidek, ahala
A.Urrutiari.

Batzarra goizeko 9etan hasi da Euskal-
tzaindiaren Bilboko egoitzan, ezkerreko
zutabearen ageri diren euskaltzainak ber-
tan direla.

Etorririko euskaltzainak agurtu ondo-
ren, Euskaltzainburuak batzarrari hasi-
siera eman dio.

1. Aurreko akta onartzea. J.L. Lizun-
diak ohar batzuk ahoz helarazi ditu eta,
idazkariak, horiek kontuan harturik, au-
rreko batzarraren akta ontzat eman da.

2. Hasi aurrekoak.

2.1. Eguneko programa. Akademia
gaietan sartu baino lehen, osoko Batzar

arruntak goizeko 9:00etatik 11:45etara iraunen duela gogorarazi du euskaltzainburuak, eta arratsaldean ez duela segidarik ukanen.

2.2. Herri-Aginteekiko kontratu hitzarmen berria. Ondoren, euskaltzainburuak azaldu duenez, azken egunetan Herri-Aginteengandik dei bat jaso du Euskaltzaindiak, erakundearen finantziatorako kontratu hitzarmena lehenbailehen sinatzeko asmoaz. Hortaz, Euskaltzaindiaren biltzarraren ondoan, gaur bertan sinatuko da dokumentu hori, eguerdiko 12etan.

3. Onomastika

3.1. «Euskal Herriko ibaien izenak» Ebrora doazen euskal ibaiak. 5. zerrenda onartzea. Erresuma zaharra zeharkatuz Nafarroatik Ebrora heltzen diren ibaien zerrendari egin zaizkion oharra A. Iñigok eta P. Galek azaldu dituzte banan-banan.

A. Iñigok proposamena aurkeztu eta erdarazko izen konposatu batzuen arazoa zintzilik gelditu zela gogoratu du, hots, izen eta izenondoz osatuena, adibidez, **Rio salado**, **Ibai zabal** gisakoena. Honetaz, hitza M. Gorrotxategiri eman dio, argitasunak eskaini ditzan. Beronek, Madrileko *Consejo Superior de Investigaciones Científicas*-ko C.E.N.G. (*Comisión Especializada de Nombres Geográficos*) deritzon Bartzordean, Euskaltzaindiaren ordezkari gisa, partaide den aldetik komisiolari era horretako izenak idazteko ohitura eta irizpideez galdetu zuen, eta horrelakoetan hitz biak batera idazteko gomendioa jakinarazi zioten, hots, **Rioseco**, **Riomayor**, **Riorrojo**, **Ciempozuelos**, **Fuemblanca** kasuetan bezala, euskaraz ere maiz jokatu izan den bezala (**Ibaizabal**, **Urederra**, **Iturrigorri**...). Beraz, horren araberrako araua hartu zen.

Ega ibaia dela eta, P. Galék izen horrekin hiru ibai ezberdin aipatzen direla adierazi du, bertara joanda, holaxe gertatzen dela egiaztatu du eta. Elkarrengandik bereizteko, erreka horietako bakoitza iragaten den toponimo nagusiaz baliatu izan dira: **Musituko Ega**, eta **Azazetako Ega**, ur emari nagusia daramana aipatzeko, hots, Lagrangoa, **Ega** soila utzirik. Era berean, **Aístora** ibaiaren erdal azentuazio bitxiaren berri eman du.

3.2. Exonomastika. «Ekialde hurbileko izenak». 1. zerrenda aurkeztea.

J.L. Lizundiak azaldu du zerrenda hauen helburua zein den. Alde batetik, bartzordeak ez du exhaustiboa izateko asmorik, baina bai munduaren alde horretako toponimo nabarmen eta garrantzitsuenetako batzuk euskaraz nola erabil daitezkeen proposatzea. Horrela Mediterraneo inguruko izen klasikoaren zerrenda biribildu nahi litzateke.

Alfontso Mujikak azaldu duenez, izen horiek Biblian eta Mediterraneoaren ekialdearen Historia klasikoan aipatzen diren tokiez gainera, gaurko Estatuaren deskribaketan beharrezkoak diren beste batzuk ere eskaini nahi izan dira, horien garrantziaren arabera. Oraingo honetan Turkia eta Azerbaijangoak aurkezten dira, hain zuzen, hango hizkuntzen transkribaketan bertan erabiltzen diren grafema batzuen balio eta erabilera azalduta.

Aurrekoa osatzeko, J.L. Lizundiak azaldu du izen horietako batzuk Grezia klasikoaren garaitikoak izateaz gainera (*Kapadozia, Nizea...*) inoiz geroago turkiartuak izan direla, eta guztiak, behialako Historia zaharra testu-liburu, entziklopedia edo bidaia-gidetan kontatzeko edota, gaurko turismo-, kirol- edo politikazko gertaerengatik (Armenia, Kurdistan, Irak...) aldizka darda gainean izaten direla aldizkari eta albistegietan.

Bukatzeko, Ekialde Hurbileko toponimo ohikoenak amaitzean, azpibatzen As-tronomiari ekiteko asmoa duela azaldu du J.L. Lizundiak, izar, planeta, satelite, galaxia eta konstelazio ezagun eta aipatuak ere euskaraz finkatzera laguntzeko asmoz. Lan honetarako, X. Kintanaren iritziz, oso eskertzekoa litzateke beste euskaltzain batzuen laguntza ere, I. Sarasolarena, bereziki, ezagunak baitira astronomian betidanik izan dituen zaletasun eta jakinduria. Euskaltzain aipatuak eskaintza onartu du.

4. Jean-Louis Davant-en emeritutasuna eta ordezkioa hautatzea

J.L. Davant euskaltzain osoak 75 urte bete dituela-eta, Euskaltzaindiaren Arautegi eta barne-erregelen arabera, euskaltzain emeritu egoerara iragan da. Horren lekuan beste euskaltzain bat hautatu behar da, eta, arautegia betez, aurreko bilzarrean amaitzen zen kandidatuak aurkezteko epea. Horren arabera, kandidatu bakarra aurkeztu da: Jean-Baptiste Coyos zuberotarra.

Botaziora pasatu aurretik, J. Haritschelharrek hitza hartu du, alde aurretik, Euskaltzaindira bilduen, etorririko emerituen eta ahala emandakoen artean zer nolako quoruma eta gehiengoa behar diren argi uzteko. Hor erabateko adostasuna dagoela ikusirik, bozketa egin da, ondoko ondorioekin:

Guztira emandako botoak: 23.

J. B. Coyosen alde: 18 boto

Boto zuriak: 5

Beraz, Jean-Baptiste Coyos hautaturik gelditu da.

5. Anaitasuna aldizkariaren digitalizazioaren aurkezpena

Euskaltzaindiak Aita Frantziskotarrekin egindako hitzarmenaren ondorioz *Anaitasuna* aldizkariaren digitalizazioa egitea lortu da. Beronen eragile eta ardura-

duna, Joan Mari Torrealdai euskaltzainak lan honen prestaketa, garapenaren eta emaitzaren berri eman du, datuak pantailan erakutsita. *Anaitasuna* Imanol Berriatua frantziskotarrak sortu zuen 1953ko ekainean eta 1980ko hamarkadara arteko iraunaldian epe eten eta gorabeheratsuak izan zituen. Imanol Berriatuak aldizkariaren euskararen kalitateaz arduratu zen, beti ere bere albisteetan bizitza erreala eta euskara erreala islatzen ahaleginduz. Ingelesaren eredia hobesten zuen berak, purismotik ihesiz, eta Bermeoko edota Eibarko euskara kaletarrak haintzat hartzen zituen.

Hasieran aldizkaria «*Suplemento a la hoja Anaitasuna de Guipúzcoa*» moduan agertu arren, 1967tik aurrera beregaina izan zen. Izen ofiziala *Anaitasuna-Bizkaia* zuen. Sekula ez da *Anaitasuna* markaren jabe izan. Urteetan zehar zuzendaritza non kokatzen zen, aldi bakoitzaren iraute-urteak eta osatzaileen izenak ere eman ditu J. M. Torrealdai. Garai ezberdinetan hilabetekari, hamabostekari eta are noizbehinkaria ere izan zela argitu du. Bertan parte izandako idazleak ere bildu ditu, bai eta ukituriko gaiak ere: politika, hizkuntza, orotarik, erlijioa, kultura, albistegiak, ekonomia, zientzia... Euskara batuaren presentzia handia nabarmendu nahi izan du.

Anaitasuna eta Euskaltzaindiaren arteko harremana dela eta, Akademiaren zerbitzuko aldizkaria izan dela esan du J. M. Torrealdai, euskararen akademiari beti ere errespetu handia gordeaz. Hizkuntza moduari dagokionez, epeen arabera, hasieran bizkaieraz hasi zen, geroago baturantz lerratu zen, eta, azkenean, osoan euskara batuaren alde agertu zen.

Digitalizatzeko egindako lan honetan, edukiak bilatu eta mamia aurkitzeko irizpideak azaldu ditu Bizkaiko euskaltzainak. Edukika, gaika, urteka, zenbakika edo egileen arabera bilatzeko moduak azaldu ditu.

Lana jada praktikan amaiturik dagoen arren, plazaratu aurretik, formatua oraindik hobetu nahiko lukeela esan du Torrealdai euskaltzainak, jendearentzat esku-ragarriago eta atsegina izan dadin.

A. Urrutiak, aurkezpena eskertu dio J. M. Torrealdairi eta jada Bilboko udalarekin harremanak izan direla azaldu du, lan hori lehenbailehen argitaratu ahal izateko.

Bukatzean J. L. Lizundiak aldizkarian parte harturiko idazleen pseudonimoez galdetu dio. Erantzunean J. M. Torrealdai itaundurikoa argitu eta izenordeetatik egiazko izenetara jotzeko zer egin behar den azaldu dio

6. Eskuartekoak

6.1.- Banaturiko liburuak

Euskaltzainen artean ondoko liburuak banatu dira:

- *Euskera* 2009.
- 3. *Hiztegi Batua*.
- *Plazaberri* aldizkaritxo.
- *Erlea-3*, literatura-aldizkaria.
- *Narrazioak eta olerkiak (gaztetxoen sariak)*.
- *Hiztegi Batua*.
- *Plazaberri* aldizkaritxo.
- *Ahotsa, hitzak, hizkuntzak. Euskal olerki antologia*.

6.2. Abenduko batzarra

Euskaltzaindiaren datorren hileko biltzarra abenduaren 17an izango da Zarautzen, goizeko 10etan, Aita Frantziskotarren komentuan. Arratsaldean, leku berean ageriko bilkura izango da eta bertan Agirre Asteasukoaren liburua aurkeztuko da.

6.3. Datorren urterako egutegiaren proposamena

Euskaltzainen artean 2011ko egutegiaren proposamena banatu da, iradokizunen zain:

Urtarrilaren 28an, Donostian: Osoko Bilkura.

Otsailaren 25ean, Bilbon: Osoko Bilkura.

Martxoaren 24, 25 eta 26an, Gipuzkoan: XVII. Barne Jardunaldiak.

Apirilaren 15ean, Diman: Aita Akesoloren mendeurrena dela eta, zenbait batzorde edota Zuzendaritzaren bilerak.

Maiatzaren 27an, Donostian: Osoko Bilkura.

Ekainaren 24an, Zuberoan: J.B. Coyosen sarrera-hitzaldia.

Uztailaren 22an, Bilbon: Osoko Bilkura.

Irailan, Tafallan: Nafarroa Oinez dela eta, zenbait Batzorderen bilerak eta Ageriko Bilkura.

Urriaren 28an, Donostian: Osoko Bilkura.

Azaroaren 25ean, Bilbon: Osoko Bilkura.

Abenduan, Baionan: A. Xahoren II. mendeurrena. Zenbait batzorderen bilerak eta Ageriko Bilkura.

7. Euskaltzaindiaren ekonomiaz

Akademiaren gaurko diru-egoera zertan den ezagutzeko, A. Urrutiak hitza diruzainari eman dio. J.L. Lizundia egungo ekonomia-egoera larriaz mintzatu da, aspaldian pairatzen den krisiak areagotua. Horrek, zer esanik ez, gastuak murriztea dakar eta, horretarako, berak uste du, Euskaltzaindiak ezinbestekoak ez dituen bilkurak gutxitu beharko lituzkeela. Bide berean, Osoko Bilkura akademikoak batez ere Bilbon eta Donostian egin beharko lirатеkeela pentsatzen du, eta gainerako bilerak herrialdeen artean banatu.

Ekonomiaren berri.

Haren hitzetan, ez daki Euskaltzaindia bidegurutzean ala gurutzebidean ote da-goen, diru-urripenaz gainera, diputazio baten laguntzak oraindik kobratu gabe dau-de eta. Izandako murrizpenak orekatzeko, J.L. Lizundiak esan du Euskaltzaindia horiek beste finantziabide pribatu batzuetatik lortzen ahaleginduko dela.

Joseba Zabaleta kudeatzaileak, bestetik, pantailan azken urteotako aurrekontuak eskaini eta elkarrekin konparatu ditu, eta urtez urte izandako beherakadak erakutsi. Kontuan izan dira, halaber, langile batzuen soldaten igoerak. Diru-aurrezpenak nondik egin daitezkeen erakutsi du, oraingo %20ko defizita %0ra jaitsi arte. Murrizpen hori egitasmoetatik jaitsi beharko da. Euskaltzaindiak ezin baitezake gasta ez daukan dirua.

A. Urrutiak, erakutsiriko zifra eta dokumentuez, horiek hor begi aurrean direla esan du, baina eskribuz eskuratu nahi dituenak eskatzea daukala.

Euskaltzaindiak beste gestio batzuk ere egin ditu, leku pribatuetan Caja de Ahorros de Navarran, Caja Laboralean, Vital Kutxan, Bilbao-Bizkaia Kutxan eta Gipuzkoako Kutxan, adibidez, eta hortik zerbait etor daiteke, programetan hain beherapen handiak gerta ez daitezzen. Datorren hilean erabaki beharko du Euskaltzaindiak nolako defizita nahi duen. Alde horretatik Zuzendaritzak iradokizunak eta ideiak eskertuko ditu. M. Azkaratek aipatu du kontratu-programen eskakizuna aipatu du, eta langileen beherapenak kontuz egin beharko lirатеkeela. Erantzunez, A. Urrutiak esan du erakundeek beste hitzarmen batzuk ere egitea

onartuko lioketela Euskaltzaindiari. J.L. Lizundiak orain arte egindako gestioen berri eman du, itxaropen eta errealismo artean. Arazo honi buruzko oharrak datoren abenduaren 9rako egitea eskertuko dira.

8. Idazkariorde berria

Euskaltzainburuak jakinarazi duenez, lehenagoko idazkariordearen lekua betetzeko deialdia eginda, hiru kandidatu aurkeztu dira: Pruden Gartzia, bibliotekaria, Felix Mugurutza, Onomastika Batzordeko kidea, eta Erramun Osa, Sustapen batzordeko idazkaria. Guztien kurrikulumak ikusi, esperientzia eta idazkariordearen lanarekiko egokitasuna aztertu eta hirurei, banan-banango elkarrizketa luzea egin ondoren, Zuzendaritzako kideek Erramun Osa lehenestea erabaki dute adostasun osoaz. Hautatuak, orain arte izan duen karguari darizkion konpromisoak konplitzeko, ordea, 2011ko urtarrilaren 1era arteko epea eskatu du, eta holaxe onartu zaio.

9. Zenbait erabaki aldatzearen ondorioak direla eta.

M. Azkaratek galdera egin du, inoiz edo behin Euskaltzaindiak aldatu edo zehaztu dituen erabaki-gomendio batzuen ondorioez. Beldur da, horiek behar bezala argitzen ez badira, ez ote duten jendartean, irakaskuntzan batik bat, nahasterik sortuko.

A. Iñigok erantzun dio, arrazoia emanez, eta gai hori areago zehazteko eskatuz. Izan ere, uztaileko bilkuran onomastikan aldaketa txiki batzuk egitea onartu zen, baina horiek, eta antzeko eraz egin diren beste batzuk ere banan-banan jaso eta argiro adierazi behar direla uste du, jendearen argitasunerako

Bilkuraren lehen zatia hamabiak hamar gutxiagotan amaitu da.

* * *

Eusko Jaurlaritzaren eta hiru diputazioen ordezkarien Hitzarmenaren dokumentua sinatu ondoren, bilerak segitu du 12,30etan.

10. Hiztegi Batuaren 3. edizioaren aurkezpena

Hiztegi Baturako batzorde ahaldunduaren izenean, I.Sarasolak eta A. Sagarnak egin dute Hiztegi Batuaren hirugarren edizioaren aurkezpena. Oraingo honetan 36.016 sarrera eta 6.052 azpisarrera dakartza, hots, bigarren edizioan baino % 29,6 sarrera eta % 45,3 azpisarrera gehiago bildurik. Beraz, aurkezleen ustez, aurreko edizioari gaineraturiko hitz kopuru handi horrek beharrezko egiten zuen jada beste

edizio osoago bat ateratzea. Bestetik, lan-taldeak erritmo onean diharduela azaldu dute, eta, amaitzeko, aurretik jarririko epeak garaiz beteko direla uste dute.

11. «Gasteizko Ubarrundia»: toponimia lana aurkeztea

Jose Luis Lizundiak aurkeztu du, Elena Martinez de Madinarekin batera. Hor Arabako hiriburuaren inguruko eskualde horretako toponimia bildu dute, aurkitu diren mapa, zerrenda eta dokumentu zahar eta fidagarrienen lekukotasunaz osatua. Biltzaileek beren lanerako erabiliriko material eta irizpideak ere azaldu dituzte, arabarren historiaren datuak berreskuratzeko beharrezkoak. Ohi bezala, oharrak Euskaltzaindiara helarazi beharko dira esandako epean.

Bilkura 13,15ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Bilbon, 2010.eko azaroaren 26an

Ageriko bilkura

Azaroaren 26an, eguerdiko 12:15etatik aurrera, Ageriko bilkura egin du Euskaltzaindiak Bilbon, Hiztegi Batuaren paperezko edizioa eta «Gasteizko Ubarrundia» egitasmoaren nondik- norakoak aurkeztuz.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Aurelia Arkotxa buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Jose Luis Lizundia diruzaina, Andoni Sagarna Iker sailburua, Andres Iñigo Jagon sailburua, Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Miren Azkarate, Jean-Louis Davant, Patxi Goenaga, Jean Haritschelhar, Joseba Lakarra, Emile Larre, Txomin Peillen, Pello Salaburu, Ibon Sarasola, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren eta Xarles Videgain.

Euskaltzain urgazleak: Rikardo Badiola, Xabier Erdozia, Patxi Galé, Mikel Gorrotxategi, Jazinto Iturbe eta Pruden Gartzia. Ezin etorria adierazi dute Jose Ramon Etxebarriak eta Abel Muniategik.

Batzordekideak: Elena Martinez de Madina.

Kudeatzailea: Joseba Zabaleta

Euskaltzaindiko langileak: Amaia Okariz eta Lutxi Alberdi.

Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta Euskaltzaindiaren arteko programakontratua izenpetu da Ageriko bilkuraren aurretik. Sinadura-ekitaldiaren ostean, Ageriko bilkura eskaini da.

Andres Urrutia euskaltzainburuak hitza hartu du ekitaldiaren nondik-norakoak aurkeztuz. Horiek horrela, Ageriko bilkurako deialdian jasotako gaietako bat,

Azkue Fundazioaren aurkezpena, ez dela egingo azaldu du, Fundazioko kideek ezin etorri adierazi dute eta.

Horren ondoren, A. Urrutiak eta Andoni Sagarna Iker sailburuak «Hiztegi Batuaren paperezko edizio berria» aurkeztu dute. Elkar argitaletxearekin koedizioan argitaratzen den liburu honek 36.016 sarrera eta 6.052 azpisarrera ditu azaldu denaren arabera. Era berean, beste xehetasun batzuk ere eman dira, hala nola, 2008ko abenduan kaleratu zen 2. argitaraldiko Hiztegi Batuak 27.786 sarrera eta 4.165 azpisarrera zituen, beraz, bi urtean %29,6 hazi da sarreratan eta %45,3 azpisarreratan. Horregatik erabaki da, hain zuzen, Hiztegi Batuaren 3. argitaraldi hau kaleratzea. A. Urrutiak eta A. Sagarnak egindako ekarpenaren garrantzia azpimarratu dute.

Hiztegi Batua bi alditan egiten ari da Euskaltzaindia, Iker sailburuak esan duenaren arabera. Lehen itzulia 2000. urtean amaitu zen. Bertan, forma erabilienak edota hedatuena jaso ziren. Orotara, 22.736 hitz onartu ziren eta liburu bakarrean argitaratu. Lehen itzulia amaitu bezain laster, bigarrenari ekin zion Euskaltzaindiak. Hiztegi Batua sarean dago, guztion eskura, nork zer jakin nahi duen egoki erraztuta. Orain eskaintzen dena paperezkoa da, aurrekoaren laguntzaile eta osagarri izateko asmoarekin egina.

Hiztegi Batuaren aurkezpenaren ondoren, euskaltzainburuak «Gasteizko Toponimia» egitasmoa aurkezteko hitza eman die Jose Luis Lizundiari eta Elena Martinez de Madinari. Egitasmo honek eskualde horretako toponimia biltzea eta berreskuratzea du helburu nagusia.

Jose Luis Lizundia egitasmoaren zuzendariak eta Elena Martinez de Madina teknikariak lanaren inguruko zehaztasunak eman dituzte. Gasteizko Ubarrundian sei herri –Gamarra, Gamarragutxia, Erretana, Amarita, Miñao eta Miñaoagutxia– sartzten dira, eta bildutako material guztia aztertu ondoren –mapak, zerrendak, dokumentu zaharrak, era guztietako lekukotasunak– 898 toponimo normatibizatu dira, horretarako 35.000 toponimo erregistro aztertu eta ikertu direlarik. Lan honen emaitza laster kaleratuko da.

Gasteizko Toponimia egitasmoaren helburua Gasteizko 64 herrixketako eta hiriko toponimo guztiak –bai historikoak, bai eta bizirik dirautenak ere– era sistematikoan biltzea da. Lehen bi liburuak, Gasteizko Toponimia I / Toponimia de Vitoria I (Ciudad / Hiria) eta Gasteizko Toponimia II / Toponimia de Vitoria II (Malizaeza), 2009ko apirilean aurkeztu zituen Euskaltzaindiak, Arabako Foru Aldundian. Orduan ere Jose Luis Lizundiak eta Elena Martinez de Madinak eman zituzten

azalpenak. Ikerketa hau gizarteratzeko asmoz, hiriburuan bertan eta herrietan hitzaldiak eta ikastaroak eman dira.

Eta besterik ez dela, euskaltzainburuaren agur eta esker oneko hitzekin amaitutzat eman da ekitaldia 13:45 direnean.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria